

## DEMOKRAZIA PARTE-HARTZAILEAREN BIDETIK: ERRONKAK ETA ESPERIENTZIAK

Ez dago demokraziaren eredu bat eta bakarra baina demokrazia ari garenean ongi dakigu denok askatasun demokratikoetan (alderdi politikoen aniztasuna, hauteskunde libreak, adierazpen-askatasuna...) oinarritzen den sistema politiko batez ari garela.

Kontua da gaur egunean sistema demokratiko liberalak, benetan existitzen direnak, krisi larrian daudela. Demokrazia liberalaren akatsak lar handiak direla eta, demokrazia parte-hartzaileago bat kontra jartzen zaio.

Ordez kagarritasunean oinarritzen diren sistema politikoak krisian daude autore askoren arabera eta publikoaren desafekzioa politikarekiko eta politikagintzan murgiltzeko interes eskasa dira ikuspegi negatibo horren seinaleak. Parte-hartzea, beraz, eztabaida eta polemikarako gaia dugu, sistema politiko demokratikoetan jendearen iritzia eta esku-hartzea baita helburu eta birtute nagusietariko bat.

Parte Hartuz, ikerketa- eta ikasketa-lanetan diharduen talde unibertsitarioa da, duela hiru urte Euskal Herriko Unibertsitatean sortu zena eta parte-hartze politikoaren inguruko gaitan perspektiba kritiko eta eraldatzaile baten arabera lan egiteko asmoa duena, alegia, demokrazia bizkortzeko, boterea birbanatzeko eta erabaki-guneetatik kanpo edo ertzetan aurkitzen direnentzat aukerak bilatzeko asmoz.

Azken hamarkadan eta, batez ere, alderdi bakarreko sozialismo burokratikoaren ereduak porrota ezagutu zuenetik, asko izan dira ekarpen teoriko zein praktikoa eremu honetan. Denontzat ezaguna dugu Porto Alegreko esperientzia aurrekontu parte-hartzaileekin, baina Latinoamerika osoan eta beste kontinenteetan, udal-dinamiketan nagusiki baina beste maila politiko-administratiboetan ere, parte-hartze politikorako kultura berri bat ekoizten ari dela pentsatzen dugu.

Moda berri bat al dugu hau, ezkerrearen krisiaren aurkako botika pasakorra? Agian. Parte-hartzea, garapen iraunkorra bezala, marketing gehigarri bat bihur daitekeela konturatu gara eta horregatik parte-hartzearekin batera datozen asmo kontraesaleak aztertu nahi izan ditugu ere. Erronka politiko sakon baten aurrean gaude eta horregatik ikasketa-prozesu askotariko eta kolektiboari ekin diogu demokrazia parte-hartzailearen inguruan dauden ekarpenak eta jarrerak ezagutu ahal izateko.

Gurean eta kanpoan gertatzen ari diren fenomeno politiko parte-hartzaileak aztertu nahi izan ditugu, haien arteko parekotasunak eta desberdintasunak esku-ratu ahal izateko. Bestalde, une honetan non politika parte-hartzaileak aktore politiko gehienek ahotan dabiltzan, parte-hartzearen dimentsio eta formulazioetan sakondu beharra ikusi dugu, denok gauza beraz ez gara berbetan ari, ohartu ahal izateko.

UEUk aukera ezin hobeak ematen ditu desafio hauetan murgiltzen direnentzat. Eztabaida eta kritikarako esparru eraikitzailea dela erakutsi du bere mende laurdeneko ibilbidean eta guk hori profitatuz gaiari heldu nahi izan diogu UEUren baitan. 2004an Miarritzeko ikastaroan hiru eguneko saioa antolatu genuen eta horren kariaz bertan egondako lagunen idazkiak UZTAROn bilduma batean (bi zatitan, zenbaki honetan erdia eta beste erdia hurrengo zenbakian) eskaintzea deliberatu genuen.

Soziologian eta Politika Zientzietan demokrazia parte-hartzailearen gaia erdigunean aurkitzen dugu gero eta sarriago, eta zoritxarrez gutxi dira euskal irakurleak dituen aukerak gaiari heltzeko. Saiakerak merezi zuela pentsatu genuenez, hona hemen eztabaida politiko eta akademikorako gure ahalegina.

Ikastaroan egin genuen bezala, lehendabizi doaz erronka globalak. Hots, demokraziaren inguruan sortzen ari diren polemikak eta gure naziotik kanpo gauzatzen diren dinamikak, eta European, eta Latinoamerikan batez ere, gertatzen ari diren esperientziak.

Bigarrenez, gure herrian ditugun kasu esanguratsu batzuen berri ere eman nahi izan dugu. Normalean egunkarietan modu partzial eta eskematikoan jorratzen diren ekimen parte-hartzaileei tarte zabalago bat ematen saiatu gara zenbait herri eta eskualdetan izandako kasu bereziak aztertuz. Badakigu aparteko kasuak direla, baina Euskal Herrian parte-hartze politikorako eskaria eta bultzada bereziki bizia antzematen dugu eta gure asmoa izan da, hain zuzen, esperientziak sozializatuz eta dauden ekimen positiboak ezagutuz edota akatsak eta alde negatiboak saihestuz, demokrazia parte-hartzailearen haziak gure gizartean sakabanatzen laguntzea. Lortu dugun den ala ez, irakurleak esango digu.

*Iñaki Barcena, Parte Hartuz taldeko kidea.*